**UDAL OSOKO BILKURA** SESION PLENARIA MUNICIPAL.

**TOKIA / LUGAR:** Udaletxea
**EGUNA / FECHA:** 2018/05/30
**HASIERA / INICIO:** 19:00
**AMAIERA/FINAL:** 19:15

**BERTARATUAK / ASISTENTES:**

**ALKATEA/EL ALCALDE:**
Aitor Aretxaga Telletxea

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES:**
Miren Idoia Etxebarria Otazua (EAJ-PNV)
Naiara Ruiz Badiola (EAJ-PNV)
Iñaki Inzunza Urrutia (EAJ-PNV)
M.ª Ascensión Larrabaster Lezamiz (EH BILDU)
Jon Ander Zulueta Andicoechea (BIT)
Rodolfo Lartitegi Azpitarte (BIT)

**IDAZKARI OROKORRA / SECRETARIO GENERAL**
Víctor-Martín Amparan Álvarez

**IZAERA / NATURALEZA:** Ohikoa / Ordinaria
**DEIALDIA / CONVOCATORIA:** Lehena / Primera

| | |
|---|---|
| Udaletxean, aipatu egun eta orduan, Alkate jauna eta goian aipatu zinegotziak bertaratuta, Udaleko Osoko Bilkura bildu zen ohiko bilkura lehen deialdian burutzeko. Ruiz andrea gai-zerrendaren bigarren puntuaren eztabaidan iritxi zen. Saioan ebatzitakoaren fede Udaleko Idazkari Víctor-Martín Amparan Álvarezek eman zuen.<br>Saioa hasi aurretik minutu bateko isiltasuna egin zen, Udal honetako Zinegotzi eta Alkate orde izan zen Luis Maria Astoreca Cearraren oroimenean, gaurko egunean hil dena.<br>Alkate Jaunak aginduta hasiera eman zitzaion bilerari zinegotziei nahikoa denborarekin banaturiko gai-zerrendaren arabera, honako akordioetara iritsita: | En la Casa Consistorial de Busturia, siendo el día y hora indicados, bajo la Presidencia del Sr. Alcalde, y con asistencia de los concejales arriba mencionados, se reunió el Ayuntamiento Pleno, al objeto de celebrar sesión ordinaria en primera convocatoria. La concejala Sra. Ruiz se incorporó durante el debate del segundo punto del orden del día. Dio fe del acto el Secretario de la Corporación, D. Víctor-Martín Amparan Álvarez.<br>Previamente al inicio de la sesión se guardó un minuto de silencio en recuerdo del que fue Concejal y Teniente de Alcalde de este Ayuntamiento, Luis María Astoreca Cearra, fallecido el día de hoy.<br>De orden del Sr. Alcalde dio comienzo el acto conforme al orden del día que ha sido distribuido entre los concejales con la suficiente antelación, adoptándose los siguientes acuerdos: |
| **1.- Aurreko saioko akta.-** | **1.º.- Acta de la sesión anterior.-** |
| Osoko Bilkurak aho batez adostu zuen 2018ko apirilaren 25eko saioko akta onartzea. | El Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, acordó aprobar el acta de la sesión de 25 de abril de 2018. |
| **2.- Alkatetza Dekretuak.-** | **2.º.- Decretos de la Alcaldía.-** |
| Osoko Bilkurari ondoko alkatetza-dekretuen berri eman zitzaion:<br>- 19/18, zeinaren bidez eskaera egin den Axpe auzoko 39ko nekazal pabiloiaren handitzea legezta dadin.<br>- 20/18, zeinaren bidez hirigintza-baimena eman zaion 12/2018 espedienteari.<br>- 21/18, zeinaren bidez hirigintza-baimenak eman zaizkion 28/2018 eta 26/2018 espedienteei.<br>- 22/18, zeinaren bidez hirigintza-baimenak eman zaizkion 27/2018, 28/2018 eta 29/2018 espedienteei. | El Ayuntamiento Pleno fue informado de los siguientes decretos de la alcaldía:<br>- N.º 19/18, por el que se requiere la legalización de la ampliación de pabellón agrícola en Axpe, 39.<br>- N.º 20/18, por el que se concede la licencia urbanística del expediente 12/2018.<br>- N.º 21/18, por el que se conceden las licencias urbanísticas de los expedientes 25/2018 y 26/2018.<br>- N.º 22/18, por el que se conceden las licencias urbanísticas de los expedientes 27/2018, 28/2018 y 29/2018. |
| **3.- EH Bilduren proposamena Nafarroako Probintzia Auzitegiaren ebazpenaren gainean.-** | **3.º.- Propuesta de EH Bildu sobre la sentencia de la Audiencia Provincial de Navarra.-** |
| Osoko Bilkurak, aho batez, EH Bilduk aurkeztutako, Nafarroako Probintzia Auzitegiaren epaiari buruzko ondoko adierazpen instituzionala onartzea erabaki zuen:<br>“Nafarroako Probintzia Auzitegiaren epaia jakin berritan, non 2016ko uztailaren 7an hainbat gizonek emakume bat bortxatu zuten, Busturiko Udalbatza Osoak honakoa ADOSTU DU: | El Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, acordó aprobar la siguiente declaración institucional sobre la sentencia dictada por la Audiencia Provincial de Navarra propuesta por EH-Bildu:<br>“Conocido el fallo de la Sentencia de la Audiencia Provincial de Navarra por los hechos consistentes en una violación múltiple el 7 de julio de 2016, el Pleno del Ayuntamiento de Busturia ACUERDA: |

LEHENIK.- Udal honek eta Busturiko herriak bere babes, maitasun eta elkartasuna adierazten die biktimari eta bere senitarteko eta ingurukoei.
BIGARRENIK.- Sententziak jasotzen duenarekin gure erabateko desadostasuna adierazten dugu, eta, bereziki, jazotakoa sexu-abusu jarraitu gisa aitortu duelako. Zentzu honetan, gure babesa erakutsi nahi diegu aipaturiko sententzia inpugnatu edo inpugnatuko duten erakundeei, beharrezkoak diren errekurtsorako bitartekoak erabiliz.
HIRUGARRENIK.- Gure etsipen eta haserrea erakusten dugu sententzia honen aurrean, eta justizia eskatzen duen aldarriarekin bat egiten dugu.
LAUGARRENIK. - Emakume guztiek askatasunerako duten eskubidea aldarrikatzen dugu, eta, era berean, Busturiko herriak ez duela inolako eraso matxistarik onartzen.
BOSGARRENIK.- Udal honek berdintasunaren alde lan egiteko konpromisoa berresten du, mugimendu sozial, feminista, eta, oro har, herritarrekin, eta bereziki, emakumeen eskubideen defentsan eta patriarkatuaren adierazpen ororen aurka”.

PRIMERO.- Trasladar todo el apoyo, el cariño y la solidaridad de este Ayuntamiento y del pueblo de Busturia a la víctima y sus familiares y allegados.
SEGUNDO.- Mostrar nuestro profundo desacuerdo con el fallo de la sentencia, y, particularmente, con la calificación de los hechos como un delito continuado de abuso sexual. En este sentido, trasladar nuestro apoyo a todas las instituciones que han/ vayan a impugnar dicha sentencia por las vías de recurso que resulten jurídicamente pertinentes.
TERCERO.- Mostramos nuestra decepción e indignación ante este fallo, y nos unimos al clamor popular que reivindica Justicia.
CUARTO.- Reivindicar el derecho de toda mujer a su plena libertad y, al mismo tiempo, declarar que Busturia es una ciudad que no tolera ningún tipo de agresión machista.
QUINTO.- Reafirmarnos en nuestro compromiso para continuar trabajando, desde este Ayuntamiento, y en colaboración con asociaciones sociales, los grupos feministas y la ciudadanía en general, a favor de la igualdad y en defensa de los derechos de las mujeres y en contra de todas las expresiones del patriarcado”.

**4.- 2018. urteko Aurrekontu Orokorra.-**

**4.º.- Presupuesto General del año 2018.-**

Kontuan hartuta 2018 ekitaldiari dagokion Aurrekontu Orokorraren onarpenak hasitako espedientea, diru-sarreretan eta gastuetan orekatua; kontuan hartuta Idazkari-Kontu Hartzailearen aldeko txostena; Osoko Bilkurak, aho batez, erabaki zuen:
Lehenik: Behin-behinean onartzea, kapituluetan banaturiko ondoko laburpenaren arabera:

Visto el expediente incoado para la aprobación del Presupuesto General correspondiente al ejercicio 2018, nivelado en ingresos y gastos; visto el informe favorable emitido por el Secretario-Interventor; el Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, acordó:
Primero: Aprobarlo inicialmente, con el siguiente resumen por capítulos:

**DIRU-SARREREN EGOERA / ESTADO DE INGRESOS**

a) Eragiketa arruntak / Operaciones corrientes
1.-Zerga zuzenak / Impuestos Directos........ 181.720,05 €
2.-Zeharkako zergak / Impuestos Indirectos........ 40.000,00 €
3.-Tasak eta bestelako sarrerak / Tasas y otros ingresos ........ 190.731,05 €
4.-Transferentzia arruntak / Transferencias corrientes ........ 1.177.802,40 €
5.-Ondarezko diru-sarrerak / Ingresos patrimoniales........ 12.419,00 €
b) Kapital eragiketak / Operaciones de capital
7.-Kapital transferentziak / Transferencias de capital........ 284.354,71 €
OROTARA / TOTAL ........ 1.887.027,21 €

**GASTUEN EGOERA / ESTADO DE GASTOS**

a) Eragiketa arruntak / Operaciones corrientes
1.-Langileria gastuak / Gastos de personal ........ 509.062,11 €

2.-Ondasun arrunt eta zerbitzuetako gastuak / Gastos en bienes corrientes y servicios ............................... 757.336,88 €
3.-Finantza gastuak / Gastos financieros ............................................................................................ 7.822,21 €
4.-Transferentzia arruntak / Transferencias corrientes ......................................................................... 140.677,53 €
b) Kapital eragiketak / Operaciones de capital
6.-Benetako inbertsioak / Inversiones reales ...................................................................................... 434.894,63 €
7.-Finantza pasiboak / Pasivos financieros ........................................................................................ 37.233,85 €
OROTARA / TOTAL ............................................................................................................................. 1.887.027,21 €

Bigarrenik.- Espedienteari erantsitako Aurrekontua Betearazteko Udal Araua onartzea.
Hirugarrenik.- Espedienteari erantsitako 2018rako aurrekontu-txantiloia onartzea.
Laugarrenik.- Jendaurrean jartzea iragarki-taularen, udal-webgunearen eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren bitartez, 15 egun baliodunez; epe horretan, bizilagunek egoki deritzoten erreklamazioak aurkeztu ahal izango dizkiote Osoko Bilkurari.
Bosgarrenik.- Onarpen-akordio hau behin betikotzat joko da, jendaurrean egon bitartean erreklamaziorik aurkeztu ezean.

Segundo.- Aprobar la Norma Municipal de Ejecución Presupuestaria que consta incorporada al expediente.
Tercero.- Aprobar la plantilla presupuestaria para 2018 que queda incorporada al expediente.
Cuarto.- Disponer su exposición al público a través del tablón de anuncios, web municipal y Boletín Oficial de Bizkaia, por plazo de 15 días hábiles, durante los cuales se podrán presentar las reclamaciones que se tengan por convenientes ante el Pleno Municipal.
Quinto.- Este acuerdo aprobatorio será considerado definitivo de no producirse reclamaciones durante el período de exposición pública.

**5.- Bizkaiko pentsionistak martxan-en mozioa.-**

Osoko Bilkurak, aho batez, Bizkaiko Pentsionistak Martxan Elkarteak aurkezturiko hurrengo proposamena onartzea erabaki zuen:
“Pentsiodunok aspaldian nabaritzen ari gara gure pentsioen eros ahalmena galtzen ari dela. Estatuko gobernuek egin dituzten ondoz ondoko pentsioen erreformek, PP-k nahiz PSOE-k, kalte handia egin digute. Gu gara, pentsiodunok, murrizketak nozitzen ari garenak (hilabete bukaerara iristea kostatzen zaigu, eta batzuetan, ezin dugu berogailua piztu); bien bitartean, badago dirua bankarentzat, elektrikentzat, enpresarientzat,...
Pentsiodun gehienok txirotasun mugaren azpitik kobratzen dugu, eta gero eta zailagoa egiten zaigu duintasunez bizitzea bizitzaren azken urteetan, urte luzez lan egin eta kotizatu ondoren. Dirudienez, horrek ez omen die axola gure politikariei, biztanleriaren %25a, pentsiodunok alegia, bizi dugun egoera arintzeko neurririk ez baidute hartzen.
Ez da aurreneko aldia, aintzakotzat har gaitzaten, eskatzen duguna eta duintasunezko bizitza bermatuko digun gutxieneko pentsioa aldarrikatzen duguna. Honen harira, gogoan izan behar dugu pentsiorik kaskarrenak dituzten gehien-gehienak, onartezina den zigor bikoitza jasaten duten emakumeak direla.

**5.º.- Moción de Bizkaiko pentsionistak martxan.-**

El Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, acordó aprobar la siguiente propuesta de la Asociación Pentsionistak Martxan de Bizkaia:
“Las personas pensionistas llevamos años perdiendo poder adquisitivo en nuestras pensiones. Las sucesivas reformas de pensiones realizadas por los gobiernos del Estado, tanto del PP como del PSOE, nos han perjudicado seriamente. Somos nosotros y nosotras las personas pensionistas quienes venimos sufriendo recortes, nos cuesta llegar a fin de mes y no podemos en ocasiones ni encender la calefacción mientras para la banca, las eléctricas, los empresarios etc. si hay dinero.
La mayoría de pensionistas cobramos por debajo del umbral de pobreza y se nos hace cada vez más difícil vivir dignamente los últimos años de nuestras vidas tras tantos años de trabajo y cotización. Todo eso no parece importarles a los políticos pues no toman medidas para paliar esa situación por la que atravesamos casi el 25% de la población, las personas pensionistas.
No es la primera vez que reclamamos se nos tenga en cuenta, se garantice unas pensiones mínimas que nos permitan vivir con dignidad. No podemos dejar pasar por alto que la mayoría de esas personas que tienen peores pensiones son mujeres que sufren un doble castigo inadmisible.

Honengatik guztiarengatik, eta BORONDATE POLITIKO BATEZ ari garela uste dugunez, UDAL HONI ESKATZEN DIOGU:

1.- %0,25eko pentsioen igoera, arbuia dezala eta pentsiodunen eros ahalmena ziurtatzea, aldarrika dezala.

2.- 1.080€ko gutxiengo pentsioa ezartzea eska dezala, Europako Gutun Sozialak Hego Euskal Herriari dagokionez aholkatzen dituen irizpideak jarraituz eta hori gauzagarri ez den bitartean, Gasteizeko Jaurlaritzari eska diezaiola aipatutako kopurua, pentsiodun guztiek hilero eskura dezaten, osagarri modura.

3.- Euskal Herriko Babes eta Gizarte Segurantza Sistema ezar dadila, gero eta pertsona adindun gehiagoren pentsio publikoak eta behar dituzten zaintzak berma daitezen.

4.- Datorren urtean, 2019an, ezarri beharko litzatekeen jasangarritasun Faktorearen ezarpena arbuia dezala, zeinak gure pentsioei, murrizketa berria eta handia ekarriko bait die.

5.- Bidal diezazkiela Estatuaren Gobernuari eta Gasteizeko Jaurlaritzari Udal honek onartu dituen erabakiak."

Osoko Bilkurak, proposamenean adierazitakoaz gain, alargunen egoera bidegabea azpimarratu behar zela esan zuen, hauen pentsioak (%60) bere bizikideenak baino askoz ere baxuagoak bait dira.

Por todo ello y entendiendo que es cuestión de VOLUNTAD POLITICA pues, como hemos manifestado antes para otras cuestiones si hay dinero, SOLICITAMOS AL AYUNTAMIENTO :

1- Que se rechace la mísera subida de 0,25% de las pensiones y se reclame el mantenimiento del poder adquisitivo de las mismas.

2- Que se solicite el establecimiento de una pensión mínima de 1.080€ como corresponde para salir del umbral de la pobreza, según corresponde para Euskal Herria según establece la carta social europea (el 60% del salario medio ponderado) y mientras eso no sea posible se reclame al Gobierno de Gasteiz que establezca el complemento necesario para que todas las personas pensionistas lleguen mensualmente a esa cantidad.

3- Que se establezca un Sistema de Protección y Seguridad Social para Euskal Herria que garantice las pensiones públicas y la atención necesaria que necesitan cada vez más las personas mayores.

4- Que se rechace la aplicación del factor de sostenibilidad que debería aplicarse el próximo año 2019 y va a suponer un nuevo e importante recorte de las pensiones.

5- Que se remita al Gobierno del Estado, al Gobierno de Gasteiz los acuerdos adoptados por este Ayuntamiento."

El Ayuntamiento Pleno también manifestó que además de lo manifestado en la propuesta, se debía de recalcar la injusta situación de los viudos y las viudas, cuyas pensiones son muy inferiores (60%) a las de sus cónyuges.

**6.- Galde-eskeak.-**

Ez ziren egon.

Eta, besterik gabe, Alkate jaunak amaitutzat eman zuen saioa, eta adostutakoren inguruan akta hau idatzi zen, Alkate jaunak eta egiaztatzen dudan Idazkariak sinatuta.

**6.º.- Ruegos y preguntas.-**

No se formularon.

Y no habiendo más asuntos que tratar, el Sr. Alcalde dio por terminado el acto y de lo acordado se extendió la presente acta que firman, el Sr. Alcalde y el Secretario que certifico.

Alkatea/El Alcalde

Aitor Aretxaga Telletxea

Idazkaria/El Secretario,

Víctor-Martín Amparan Álvarez